

Rafael Moreno "Pichichi"




Rafael Moreno "Pichichi"

Rafael Moreno Aranzadi, "Pichichi", 1982ko maiatzaren 23an jaio zen, Andra Maria kaleko hirugarren pisuko ezkerreko atean, Bilboko Alde Zaharrean. Bere aita, Joaquín Moreno Goñi, Amurrión jaiotako abokatu ospetsua izan zen eta Bilboko Udalaren udal-idazkari lanetan aritu zen 1886 eta 1891 artean. Bertan, alderdi liberalerako zinegotzi hautetsi gisa, udaleko alkateorde bihurtu zen eta, 1896ko azarotik 1897ko ekainera, alkatea, Emiliano Olanok dimititu egin baitzuen. Bere ama, Dalmacia Aranzadi Unamuno, Bergarako pastelgile famatu baten alaba zen eta, amaren bidez, hain zuzen ere, euskal kulturako bi figura entzutetsuren ahaidea zen "Pichichi": Telesforo Aranzadi antropologoaren odoleko iloba eta Miguel de Unamuno idazlearen bigarren iloba.

Rafaelek Eskolapioen ikastetxean ikasi zuen eta, ondoren, bere aitak hala nahi izan zuenez, Deustuko Unibertsitatean matrikulatu zen. Hala ere, bere afizio eta zaletasunak legeen mundutik urrun zeuden. Ume-umetatik futbolearen ematen zituen libre zeuzkan orduak eta gogor aritu zen eskolako patioan, Aiala kalean eta Ingelesen Landan inprobisatzen zituzten partiduetan, nagusiagoak eta handiagoak ziren jokalarien aurka. Hala, Rafael txikia izanik, "pichichi" ezizena jarri zioten. Garai hartako "talentu-ehiztariren" batek bere gaitasunak ikusi zituenean, Athletic-eko behe mailako taldeetan sartu zen, 1910aren hasieran. 1913ko martxoaren 17an debutatu zuen ofizialki, Real Madriden kontra jokatutako kopako partiduan, eta zuri-gorrien garaipena eragin zuten hiru goletatik bi bereak izan ziren. Mito bat jaio zen. Athleticen egin zituen hamabi denboraldietan "Pichichik" 209 gol sartu zituen. Bere garaipen-zerrendan dauzka 4 kopa, eskualdeko 4 txapelketa eta nazioarteko 4 txapelketa, Espainiarekin parte hartu baitzuen Anbereseko Joko Olimpikotan, 1920an. San Mames 1913ko abuztuaren 21ean inauguratu zenean, berak sartu zuen zelaiaren historiako lehenengo gola.

Askok uste dute bere belaunaldiko jokalaririk onena izan zela. Gizon argia zen, bizitasun, ausardia eta inprobisatzeko gaitasun ez berea, sasoi onekoa, driblin aparta, jaurtiketa bikainduna eta buru-erremate ezin hobekoa. Ez zitzaion diziplina asko gustatzen, alai eta zalapartaria zen, eta emakumeen artean arakasta eta ospe handia zuen. Hori horrela, era guztietako gai eta ikuskizunetan parte hartzen zuen eta San Frantzisko kaleko Salón Vizcaya ezaguneko bezero leialenetakoa zen (palkoetako bat bere izenean gordeta zegoela esaten da).

1919an ezkondu zen Avelina Rodríguez Miguelekin, Bilbon egon izan den txatar-biltzaile garrantzitsuenaren (Merodio) ilobarekin. Harekin izan zuen, hain zuzen ere, alaba bat: Isabel. Laster, 1921eko maiatzean, futboleant jokatzeari utzi zion, baina mundu horretan jarraitu zuen, arbitro lanetan. Hala ere, ez zuten lehen bezalako arrakasta eta onarpena lortu. 1922ko maiatzaren 1ean, bere etxean (Iturribideko 21ean) hil zen Rafael Moreno Aranzadi, tifus baten ondorioz, beharbada baldintza txarretan zeuden ostra batzuk jan zituelako. Derion, Vista Alegre hilerrian aurkitzen da bere gorpuzkia, Aranzadi-Unamuno familiaren panteoian. Hala ere, bere oroitzapenak bizirik dirau Artetak berari eta gero bere emaztea izango zenari eskaini zien olioan (*Idilio en los campos de sport*), Quintín de Torreren bustoan (1926an inauguratu zenetik, San Mames lehenengoz bisitatzen duten klub guztiek loreak jartzen dituzten bertan), eta, azkenik, Pichichi garaikur ezagunean. *Marca* egunkariak 1952-1953 denboraldian eratu zuen garaikur horrek urtero saritzen du Futbol Ligan gol gehien sartu dituenen, eta, hedaduraz, beste txapelketa batzuetan gol gehien sartu dituztenak.



Rafael Moreno Aranzadi, "Pichichi", nació el 23 de mayo de 1892 en el piso tercero izquierda de la calle Santa María, en el Casco Viejo de Bilbao. Fue su padre, Joaquín Moreno Goñi, un prestigioso abogado natural de Amurrión que ocupó el cargo de secretario municipal del Ayuntamiento de Bilbao entre 1886 y 1891, Ayuntamiento del que, ya como concejal electo por el partido liberal, llegaría a ser Teniente Alcalde y, desde noviembre de 1896 a junio de 1897, Alcalde, en sustitución del dimitido Emiliano Olano. A su madre, Dalmacia Aranzadi Unamuno, hija de un afamado pastelero de Bergara, debe "Pichichi" su parentesco con dos insignes figuras de la cultura vasca: fue sobrino carnal del antropólogo Telesforo Aranzadi y sobrino segundo del escritor Miguel de Unamuno.

Estudió Rafael en el colegio de los Escolapios, matriculándose posteriormente, por expreso deseo de su padre, en la Universidad de Deusto. Sus gustos y aficiones estaban, sin embargo, lejos del mundo de las leyes. Ya desde niño dedicaba todos sus ratos de ocio al deporte del balompié, fajándose duramente en los improvisados terrenos del patio del Colegio, la calle Ayala y la Campa de los Ingleses donde competía con jugadores de mayor edad y tamaño, lo que, por pequeño, le valió el apelativo de "pichichi". Vistas sus habilidades por algún "cazatalentos" de la época, a comienzos de 1910 se incorpora a los equipos inferiores del Athletic. Su debut oficial se produjo el 17 marzo 1913 en encuentro de Copa disputado contra el Real Madrid, anotando dos de los tres goles que dieron la victoria a los rojiblancos. Había nacido el mito, la leyenda. En sus doce temporadas con el Athletic "Pichichi" marcó 209 goles y en su palmarés cuentan 4 Copas, 6 Campeonatos Regionales y 5 internacionalidades, al participar con España en los Juegos Olímpicos de Amberes de 1920. A él le cupo el honor de marcar el primer gol de la historia de San Mamés el día de su inauguración, un 21 de agosto de 1913.

Considerado por muchos el mejor jugador de su generación, estaba dotado de una despierta inteligencia, no exenta de pillería, audacia y capacidad de improvisación, una gran condición física, un excelente regate, un tremendo disparo y un gran remate de cabeza. En su juego, sus intermitencias y su escaso gusto por la disciplina, a lo que no era ajeno su carácter alegre y bullanguero que, alentado por su popularidad y su éxito entre las mujeres, le llevaba a participar en todo tipo de juergas, fiestas y espectáculos, siendo uno de los más fieles clientes del conocido Salón Vizcaya de la calle San Francisco, donde se dice que tenía incluso unos palcos reservados con su nombre.

Considerado por muchos el mejor jugador de su generación, estaba dotado de una despierta inteligencia, no exenta de pillería, audacia y capacidad de improvisación, una gran condición física, un excelente regate, un tremendo disparo y un gran remate de cabeza. En su juego, sus intermitencias y su escaso gusto por la disciplina, a lo que no era ajeno su carácter alegre y bullanguero que, alentado por su popularidad y su éxito entre las mujeres, le llevaba a participar en todo tipo de juergas, fiestas y espectáculos, siendo uno de los más fieles clientes del conocido Salón Vizcaya de la calle San Francisco, donde se dice que tenía incluso unos palcos reservados con su nombre.

Casado en 1919 con Avelina Rodríguez Miguel, sobrina de Merodio, el más importante chatarrero que ha tenido Bilbao, fue padre de una niña, Isabel. Poco después, en mayo de 1921, colgó las botas aunque permaneció en el mundo del fútbol dedicado al arbitraje, donde no llegó a alcanzar el mismo éxito y aceptación popular. El 1 de marzo de 1922, en su domicilio de Iturribide 21, falleció Rafael Moreno Aranzadi, víctima del tifus, quizás originado por unas ostras en mal estado. Sus restos descansan en el panteón de la familia Aranzadi-Unamuno en el Cementerio de Vista Alegre, Derio. Su recuerdo permanece, inmortalizado en el óleo que Arteta les dedicó a él y a la que luego sería su mujer (*Idilio en los campos de sport*), en el busto de Quintín de Torre al que, desde su inauguración en 1926, todos los clubes que visitan San Mamés por primera vez hacen una ofrenda floral y, por último, en el conocido Trofeo Pichichi que, instituido por el diario *Marca* en la temporada 1952-53, anualmente premia al máximo goleador de la Liga de Fútbol y, por extensión, a los máximos goleadores de otras competiciones y torneos.

“Nati la Bilbainita”



“Nati la Bilbainita”

Natividad Álvarez, artistikoki “Nati La Bilbainita” goitizenaz ezaguna, Bilbon jaio zen mende-amaiera inguruan. Artearen eta farandularen munduarekiko interes eta afizioa are gehiago handitu ziren egunero San Frantzisko kaleko Salón Vizcaya ezagunean aritzen ziren ikuskizunetako figurak ikustean (bere gurasoak, Burgostik etorriak, buffetaren arduradunak ziren). Bere artea, hala ere, jaiotzatik zera-man barruan.

Txikia, bizia eta pertxenta, prestakuntza zehatzik gabea, dantzari eta kupletisten mugimenduak eta keinuak kopiatuz eta bere intuizio eta bihozkaidei jarraiki, gaitasun handia erakutsi zuen eta bere amak hiriburura bidali zuen, aukera profesionalen bila. Adelita Lulú *varietés* artista izango zen bere ama puntako artistikoa eta bere debuta erraztu zuen, arrakasta eta ospez beteko zuena. Bartzelonako Poliorama Antzokian eman zioen hasiera ibilbideari, 1913an. Handik antzoki espainiar eta atzerritar onenetara joan zen bere dantzak erakustera, Madril, Paris eta Londresen arrakasta izan zuen, eta La Chelito, Dora la Cordobesa, Aurora Jauffret La Goya, La Coquito edo Luisita Estesó bezalako artistekin partekatu zuen eszenatokia.

Gaitasun teknikoak, mugimendu-azkartasun aparta eta kaskainetak jotzeko trebezia bikaina izan arren, besoekin egiten zituen keinuak eta, batez ere, bere aurpegia eta begirada izan ziren bere arteari indarra eman eta berezi bihurtzen zutenak, pasio eta emozio guztien isla, ikusleak gupidarik gabe liluratuz.

Enkarterrietan jaiotako indianoa ere liluratuta geratu zen, José Antonio Arechabala Hurtado de Mendoza. 1881ean jaioa, José Arechabala Aldamaren semea, azken hori Gordexolan jaioa eta Kubara emigratua. Bertan, punta-puntako industria-gunea sortu zuen eta La Vizcaya destilategiak gailendu ziren (Arechabala eta Havana Club ronaren jatorria). Nati eta José Antoniok elkar ezagutu zutenean, biziki maitemindu ziren eta berak bere lana uztea erabaki zuen, ezkondu eta familia egonkor bat osatzeko. 1922an bere azken ekitaldiak eman zituen. 1924ko otsailaren 15ean, 23 urte eskas zituela, erditzean izandako zailtasunen ondorioz hil egin zen, eta bere semea ere berekin batera. Arechabala familiaren panteoi familiarrean hartzen du atseden, Gordexolan.



Natividad Álvarez, artísticamente conocida como “Nati La Bilbainita”, nació en Bilbao en torno al cambio de siglo, hija de padres emigrados desde Burgos. Su interés y vocación por el mundo del arte y la farándula se vio alimentado por el diario alternar con las figuras del espectáculo que actuaban en el conocido Salón Vizcaya de la calle San Francisco, donde sus padres regentaban el ambigü. Su arte, sin embargo, era innato.

Pequeñita, vivaracha y pizpireta, sin ninguna formación específica, sólo emulando los movimientos y ademanes de bailarinas y cupletistas y guiada por sus impulsos e intuiciones, pronto mostró unas aptitudes que animaron a su madre a llevarla a la capital a la búsqueda de oportunidades profesionales. La artista de *varietés* Adelita Lulú sería su madrina artística, facilitando su debut, que iría seguido de un rápido éxito y popularidad. Inició su carrera en el Teatro Poliorama de Barcelona en el año

1913 y de ahí pasó a mostrar sus bailes en los mejores teatros españoles y extranjeros, triunfando en Madrid, Paris y Londres y compartiendo escenario, sin que le hicieran sombra, con artistas como La Chelito, Dora la Cordobesa, Aurora Jauffret La Goya, La Coquito o Luisita Estesó.

Dotada de habilidades técnicas, una extraordinaria viveza de movimientos y una gran maestría para tocar las castañuelas, eran, sin embargo, sus gestos con los brazos y especialmente su cara y su mirada, espejo de todo tipo de pasiones y emociones, lo que daba realmente fuerza a su arte y la hacía diferente, encandilando sin remisión a los espectadores.

Encandilado debió quedar también el indiano de origen encartado José Antonio Arechabala Hurtado de Mendoza. Nacido en 1881, era hijo de José Arechabala Aldama, natural de Gordexola y emigrado a Cuba en 1862, donde creó todo un emporio industrial en el que destacaban las destilerías La Vizcaya, origen del ron Arechabala y del Havana Club. Nati y José Antonio se conocieron y se enamoraron apasionadamente, hasta el punto de que ella decidió abandonar su profesión para contraer matrimonio y fundar una familia estable. El año 1922 fue testigo de sus últimas actuaciones. El 15 de febrero de 1924, con apenas 23 años, dificultades en el parto pusieron fin a su vida y a la del hijo que esperaban. Sus restos reposan en el panteón familiar de la familia Arechabala en Gordexola.



1964ko azaroaren 15ean Santandereen jaio zen arren, Manuel Torcida Torre izena, eta, are gehiago, bere negozioaren izena (Casa Lux) Bilbo eta Bizkaiko argazkigintzaren historiarekin lotuta daude.

Andrés Torcida eta Rosario Torrerren semea, bi horiek Kantabriako hiribilduko Paseo de Pereda dotorean zegoen hotel baten jabeak. Manuel Torcidak Kimika eta Farmazia ikasi zuen Salamancako Unibertsitatean, eta XIX. mendearen azken hamarkadan Bilbon finkatu zen, Barandiarán y Cia Pintura eta Barniz Lantegiko zuzendari-lanetan, La Peñan, San Cristóbal Irla deiturikoaren parean.

Argazkigintza gustatzen zitzaionez, Barandiaran Lantegian zuen lana utzi eta Hiribilduan bere negozio propioa jarri zuen: argazki-denda bat Posta kalean. Ondoren, 1901ean, García Razquin argazkilariarekin batera, Compañía General de Material Fotográfico Lux sortu zuen, Bilboko Galtzada Nagusian. Gainera, Lumiere sinaduraren ordezkari zuten, gailu eta osagarri zinematografiko, fonografo eta panoramen eskaintza berritzaile eta aitzindariak eskainiz. Baina García Razquinekin osatutako elkarteak laster gelditu zen bertan behera, eta Torcida arduratu zen, bere kabuz, negozioa eramateaz, garapen sakona emanaz. Argazkigintzako eta zinematografiako materiala saltzeaz gain, Manuel Torcida argazkilari aparta eta jakituna zenez, estudio-erreturatu bikainak egin zituen, baina, batez ere, euskal geografia osoan egindako irudi mordoa utzi zizkigun, garai hartako pasaia, monumentu, tipo eta ohituren lekuko ezin hobea.

Lux etxea laster bihurtu zen ospetsu argazkigintza profesional eta artistikoaren munduan eta hamabostik gora langile eta lantegi eta biltegi izan zituen Recalde zumarkalean, Galtza Nagusiko bulego nagusiaz gain. Garai hartako argitalpen grafiko ospetsuenentzat eta erakunde publiko ugariarentzat egiten zuen lan eta nazioko eta nazioarteko hainbat sari eta garaikur jaso zituen.

Manuel Torcida bete-betean integratu zen Bilboko bizitza sozialean ere. El Sitio elkarteak bazkidea zen, 1915ean *El Sinsorgo* astekari satiriko dibertigarria sortu zuen, Larrinagako kartzelako presoek prestakuntza eta aisialdirako zine-saioak antolatu zituen eta Club Deportivoren sustatzaileetako bat izan zen, batez ere mendiaren atalarekin lotuta. Atal horretan parte-hartze aktiboa izan zuen, egin ziren lehenengo ibilbideen argazkiak atera baitzituen eta ekimen herrikoietako buru izan baitzen. Besteak beste Pagasarrin 1914an Tarin iturria eraikitzeko harpidetzan parte hartu zuen.

Manuel Torcida Torre Bilbon hil zen 1928ko abenduaren 24an eta bere seme Luis Torcida Ortizen esku onetan utzi zuen negozioa.



Aunque nacido en Santander un 15 de noviembre de 1864, el nombre de Manuel Torcida Torre y, más aún, el nombre de su negocio (Casa Lux), están indisolublemente asociados a la historia de la fotografía en Bilbao y Bizkaia.

Hijo de Andrés Torcida y Rosario Torre, propietarios de un hotel en el señorial Paseo de Pereda de la villa cántabra, Manuel Torcida estudió Química y Farmacia en la Universidad de Salamanca y en la última década del XIX lo encontramos ya en Bilbao, trabajando como director de la Fábrica de Pinturas y Barnices Barandiarán y Cia., situada en La Peña, frente a la Isla de San Cristóbal.

Su afición por la fotografía le impulsó, sin embargo, a dejar su trabajo en la Fábrica de Barandiarán y a instalar su propio negocio en la Villa, un establecimiento fotográfico en la calle Correo. Poco después, en 1901, asociado con el fotógrafo García Razquin

fundó la Compañía General de Material Fotográfico Lux que, ubicada en la calle Gran Vía de Bilbao, tenía además la representación de la firma Lumiere en España, con una innovadora y pionera oferta de aparatos y accesorios cinematográficos, fonógrafos y panoramas. La asociación con García Razquin se disolvió al poco tiempo, quedando Torcida al frente del negocio en solitario y desarrollándolo en profundidad. Más allá de la venta de material fotográfico y cinematográfico, Manuel Torcida ejerció como el gran erudito y brillante fotógrafo que era, realizando excepcionales retratos de estudio pero, sobre todo, legándonos una impresionante cantidad de imágenes realizadas por toda la geografía vasca que suponen un impagable testimonio del paisaje, los monumentos, los tipos y las costumbres de aquella época.

La Casa Lux pronto alcanzó una gran notoriedad en el campo de la fotografía profesional y artística, llegando a tener más de quince empleados y talleres y almacenes en la Alameda de Recalde, además del despacho principal de Gran Vía. Trabajaba por encargo para las más prestigiosas publicaciones gráficas del momento y para un buen número de instituciones públicas, recibiendo múltiples galardones y premios nacionales e internacionales.

La integración de Manuel Torcida en la vida social bilbaina fue asimismo plena. Socio de la Sociedad El Sitio, creó en 1915 el semanario satírico chirene *El Sinsorgo*, organizó sesiones de cine para recreo y formación de los presos de la cárcel de Larrinaga y fue también uno de los fundadores del Club Deportivo, especialmente vinculado a su sección de montaña, en la que participó activamente documentando muchas de aquellas primitivas excursiones y encabezando iniciativas populares como la suscripción para la construcción de la fuente del Tarín en el Pagasarrin en 1914.

Manuel Torcida Torre falleció en Bilbao el 24 de diciembre de 1928, dejando su negocio en las bien preparadas manos de su hijo, Luis Torcida Ortiz.



Sabino de Goicoechea, "Argos" famatua, 1826. urteko azken egunean jaio zen. Bermeoko Antonio Goicoechea zen bere aita, Bilboko udal-arkitektoa eta egungo San Frantziskoko zubi esekiaren egilea (1828). Ama Alberta Echevarria bilbotarra zen eta 1824an ezkondurik, Bilbon bizi izan ziren, nahiz eta lotura handia zuten itsasaldetako hiribilduekin, bertan jaio baitziren beren seme-alabetako bi gutxienez, horien artean Sabino.

Bere aitaren bideari jarraiki, Sabino de Goicoecheak Arkitektura ikasi zuen Madrilen eta bertan bizi izan zen denbora batez. Madrilen ezkondu zen, hain zuzen ere, Manuela Campillo Nietorekin eta 1852an beren lehen semea izan zuten, Alberto. Valladoliden lanean urte batzuk pasa ondoren, Sabino Bilbora itzuli zen, bere talentu profesionalaren ale apartak uzteko. Izan ere, bereak dira Vista Alegreko Zezen Plaza zaharra (1882), Alde Zaharreko Banco de Españaren eraikina (1885) edo Foruen Zubi desagertua (1869) bezalako proiektu eta eraikin handiak. Azken hori, dagoeneko desagertuta dagoen zubia, Abandoko elizateak eskatu zion, Naja ingurua Andra Mari kalearekin lotzeko. Herrilanen eremuan egin zuen ekimen handietako bat Bizkaiko Trenbide Zentralaren eraikuntza izan zen. Hasiera batean Bilbo eta Durango lotzeko egin zen arren, ondoren Donostiara hedatu zen. Sabino proiektu haren zuzendari kudeatzailea izan zen hil arte.



Eta lan horiek garrantzitsuak diren arren, ez ziren bakarrak izan, ez eta Goicoecheak egin zituen ezagunenak ere. Beste pasio handi bat ere bazuen: literatura, idatzizko letra. 1867an bere lehen lana argitaratu zuen, *Ellos y Nosotros. Episodios de la guerra civil*. Bertan, gerra karlistari buruzko bihotz-bihotzetiko kontakizunak batu zituen. Hurrengo urteetan, "Argos" ezizena hartuta, bere lanik ezagunenak atera zituen: *Pasavolantes* (1883), *Otros Pasavolantes* (1889) eta *Últimos Pasavolantes* (1895), Bilboko gizartearen ohi-turen erretratu barregarriak, industrializazioaren eraginaren mehatxupean zegoen bizimodu batekiko nostalgia eta maitasunaren lekuko.

Prentsan ere aritu izan zen. Lehenengo hainbat artikulua sinatu zituen bere goitizenaz garaiko egunkari eta aldizkari desberdinetan, eta, amaitzeko, bere komunikabide propioa sortu zuen. 1891ko urtarrilaren 25ean irten zen *El NerviÓN* egunkariaren lehenengo alea. Izaera liberal, kotserbatzaile eta monarkikoko arratsaldeko egunkari hau Goicoecheak sortu zuen, Gandarias familiaren babes ekonomikoarekin. Bera izan zen egunkariaren zuzendaria hil arte.

Gizon dotore eta apain hau, puru-erretzaile amorratua eta langile nekazina, Bilboren eta bere tradizioen zalea zen. Kondairak dioenez, La Salve inguruan itsasertza bideratzeko obretan moztu zen zuhaitz handi baten enborra hartu omen zuen, harekin Ama Birjinen irudia eraikitzeko.

Sabino de Goicoechea y Echevarria Bilbon hil zen 1901eko urtarrilaren 15ean.

Sabino de Goicoechea, el popular "Argos", nació el último día del año 1826. Era hijo del bermeano Antonio Goicoechea, arquitecto municipal de Bilbao y autor del puente colgante de San Francisco (1828), y de la bilbaina Alberta Echevarria, casados en el año 1824 y residentes en Bilbao, aunque manteniendo fuertes lazos con la villa marinera, donde nacieron al menos dos de sus hijos, uno de ellos Sabino.

Siguiendo los pasos de su padre, Sabino de Goicoechea estudió Arquitectura en Madrid, ciudad en la que residió durante un tiempo, en la que se casó, con Manuela Campillo Nieto, y en la que vio la luz, en 1852, su primer hijo, Alberto. Tras unos años ejerciendo en Valladolid, Sabino regresó a Bilbao para dejarnos significativas muestras de su talento profesional, ya que a él se le deben los proyectos y obras de edificios tan emblemáticos como la primitiva Plaza de Toros de Vista Alegre (1882), el edificio del Banco de España en el Casco Viejo

(1885) o el desaparecido Puente de los Fueros (1869), un encargo de la anteiglesia de Abando que unía la zona de la Naja con la calle Santa María. Otra de sus grandes iniciativas en el campo de las obras públicas fue la construcción del Ferrocarril Central de Vizcaya, originalmente para la conexión entre Bilbao y Durango y posteriormente ampliada hasta San Sebastián, del que fue director gerente hasta su fallecimiento.

Con ser considerables estas realizaciones, no fueron ni las únicas ni quizás tampoco las más conocidas de las protagonizadas por Goicoechea. Su otra gran pasión, su segunda vocación fue la literatura, la letra impresa. En 1867 publicó su primera obra, *Ellos y Nosotros. Episodios de la guerra civil*, un conjunto de sentidos relatos sobre la primera guerra carlista, y en años posteriores, utilizando el seudónimo de "Argos", dio a la imprenta su más conocidas obras: *Pasavolantes* (1883), *Otros Pasavolantes* (1889) y *Últimos Pasavolantes* (1895), colecciones de jocosos cuadros de costumbres sobre la sociedad bilbaina, testimonio de su amor y su nostalgia por una forma de vida amenazada por los efectos de la industrialización.

La prensa fue otro de los campos que atrajeron su atención, colaborando primero con diversos artículos firmados con su seudónimo en diversos periódicos y revistas de la época, para terminar finalmente creando su propio medio de comunicación. El 25 de enero de 1891 aparecía el primer número de *El NerviÓN*, un diario vespertino de corte liberal, conservador y monárquico, fundado por Goicoechea con el apoyo económico de la familia Gandarias y que él mismo dirigiría hasta su muerte.

Este hombre de aspecto atildado y elegante, empedernido fumador de puros y trabajador incansable, era un gran amante del Bocho y sus tradiciones, circulando la historia de que llegó a adquirir el tronco de un gran árbol que hubo de cortarse en la zona de La Salve por obras de encauzamiento de la ría, para construir con él una imagen de la Virgen.

Sabino de Goicoechea y Echevarria falleció en Bilbao el 15 de enero de 1901.



Bilboko kronistarik handiena, Teófilo Salvador Guiard Larrauri, 1876ko otsailaren 28an jaio zen hiribilduan. Martxoaren 2an bataiatu zuten Joan Santuen elizan, familiak bisitatu ohi zuen Bariko San Nicolas eliza militariki okupatuta baitzegoen, garai hartan bizi zen gerra-egoeraren ondorioz. Bere anaia Adolfo Guiard margolaria baino hamasei urte gazteagoa eta Alphonse Guiard frantsesaren eta Juana Larrauri bilbotarraren 14 seme-alaben arteko hamargarrena, Teófilok Instituto Vizcainon egin zituen bere lehen ikasketak. 1893an graduatu ondoren, Salamancara joan zen eta, bertan, Filosofia eta Letrak lizentziatura atera zuen, azkenean Madrilgo Unibertsitatean doktoregoa eginik.

Bere ikasketak amaitutakoan eta Bilbora itzulita, hiribilduaren historiari buruzko ikerketa-lanak hasi zituen. Agirietan dokumentazio bila egindako lanaren eta datu historikoen gaineko pasioaren ondorioz, *Historia de la Noble Villa de Bilbao* lehen lana argitaratu zuen lau liburukitan 1905 eta 1912 artean. Bertan, hiribilduaren historia kontatzen da sortu zenetik (1300ean) 1836ra arte. Udalen diru-laguntza ugari izan zituen eta, horri esker, Teófilo Guiard Bilboko Hiribilduko ohorezko kronista izendatu zuten 1909an, kargu hori 1912an bete zuelarik. Garai berean aintzatetsi zitzaion udalerriko agirizain-liburuzainaren postua betetzeko eskubidea eta 1919an bete zuen, ordura arte titularra izan zena (José Nuñez) hil zenean.

Kronista postuan zegoela, Guiardek bere ikerketekin jarraitu zuen, Bilboko historian gakoa izan den erakunde baten historian oinarrituta: 1913-1914an *Historia del Consulado y Casa de Contratación de Bilbao* liburuaren bi liburuki biziki dokumentatuak idatzi zituen, erakundearen gorabeherak kontatuz 1511n sortu zenetik 1830ean desagertu arte. *La Industria naval vizcaína* 1917an atera zen eta Ramón de la Sota ontzi-jabeari buruzkoa zen. Azken hori izan zen bere azkenengo ekoizpen handia eta, aurreko guztiek bezala, Bilboko historiografian oinarritu zen.

Bizkaiko Monumentuen Batzordeko kidea, Bizkaiko Museo Arkeologikoko eta Euskal Museo Etnografikoko Patronatu Batzordeko kidea, Historiaren Errege Akademiako urgazlea... bere orientazio politikoa abertzalea izan zen. Ikasle-garaian, zehazki, Sabino Aranak 1897an sortutako *Baserritarra* egunkariaren lehenengo aleen zuzendaria izan zen.

1945eko ekainaren 29an, bera jaiotzen ikusi zuen eta bere lorik gabeko gauak bizi izan zituen hiribilduan, Teófilo Guiard hil egin zen. Urte horretako iraileko alkatetza-dekretu batek Casilda parke-rako sarreretako bati bere izena ematea erabaki zuen.



El cronista de Bilbao por excelencia, Teófilo Salvador Guiard Larrauri, nació en la Villa el 28 de febrero de 1876, siendo bautizado el día 2 de marzo en la Iglesia de los Santos Juanes al hallarse ocupada militarmente, por efecto de la situación de guerra que se vivía entonces, la Iglesia de San Nicolás de Bari a la que la familia estaba adscrita. Dieciseis años más joven que su hermano, el pintor Adolfo Guiard, y décimo primer hijo de una familia de 14 vástagos formada por el francés Alphonse Guiard y la bilbaina Juana Larrauri, cursó Teófilo sus primeros estudios en el Instituto Vizcaino. Graduado en 1893, marchó a Salamanca donde se licenció en Filosofía y Letras, para finalmente doctorarse por la Universidad de Madrid.

Una vez finalizados sus estudios y de vuelta en Bilbao inicia sus labores de investigación centradas en la historia de la Villa. Su ingente búsqueda de documentación en los archivos y su

pasión por los datos históricos tuvieron su primer fruto en la obra *Historia de la Noble Villa de Bilbao*, publicada en cuatro tomos entre 1905 y 1912, que narra la historia de la Villa desde su fundación en 1300 hasta el año 1836. Esta obra, que contó con sucesivas subvenciones municipales, le valió a Teófilo Guiard el nombramiento de cronista honorario de la Villa de Bilbao en 1909, cargo que se convertirá en efectivo en 1912, reconociéndosele también entonces el derecho a ocupar el puesto de archivero-bibliotecario del municipio, que se hará finalmente efectivo en 1919 tras fallecer quien había sido su titular hasta entonces, José Nuñez.

Ya desde su puesto de cronista continuó Guiard con sus investigaciones, enfocadas ahora hacia la historia de una institución clave en la historia de Bilbao: en 1913-1914 aparecen los dos documentadísimos tomos de la *Historia del Consulado y Casa de Contratación de Bilbao* narrando los avatares de la institución desde su creación en 1511 hasta su desaparición en 1830. *La Industria naval vizcaína*, aparecida en 1917 y dedicada al naviero Ramón de la Sota, será su última gran producción y, al igual que las anteriores, referente obligado en la historiografía de Bilbao.

Miembro de la Comisión de Monumentos de Vizcaya, integrante de la Junta de Patronato del Museo Arqueológico de Vizcaya y Etnográfico Vasco, correspondiente de la Real Academia de la Historia... su orientación política fue claramente nacionalista, habiendo llegado a ser en sus años de estudiante director de los primeros números del periódico *Baserritarra* fundado por Sabino Arana en 1897.

El 29 de junio de 1945, en la villa que le vio nacer y fue objeto de sus desvelos, falleció Teófilo Guiard. Un decreto de Alcaldía de septiembre de ese mismo año acordaba dar su nombre a una de las entradas al parque de Doña Casilda.

Alfredo Echave



Alfredo Echave

Estufa kale bilbotarrean, 1872ko otsailaren 8an, jaio zen Alfredo Echave Nazabal. Tomás Echave Zárraga bilbotarraren eta Dominga Nazabal Echave oriotarraren laugarren semea izan zen. Gurasoak San Nikolasen ezkondu ziren 1860. urtean.

Echavek Merkataritza ikasi zuen eta, beraz, merkataritza-gaietan egin zuen lan. Bolada batez Sociedad Basconiarren ordezkari-lanetan aritu zen Bartzelonan eta 1911n Buenos Airesera bidaiatu zuen Merkataritza Ganbera ordezkatzuz, Banco Vasco delakoa sustatzeko.

Baina bere afizio eta interes pertsonalak beste eremu batzuetan zebiltzan. 1898an bere lehen antzezlan idatzi zuen, *La Horda* izenburukoa, "Euzkeldun Biltokia" delakoan antzezteko, hau da, Azkuek antzerkia eta euskara sustatzeko sortu zuen kultura-elkartean. Baina elkarteia itxi egin zenez, ezin izan zen eszenaratu. Hala ere, testua *Lenago il* libretoa sortzeko oinarria izan zen. Azken lan hori, Valle Maisuaren musikarekin, bere lehen estreinaldia izan zen 1905ean. Alfredo Echave euskal antzerki lirikoaren sustatzaileetako bat bihurtu zen. Hurrengo urteetan, hainbat lan argitaratu zituen: *Bide Onera*, Valleren musikaren, *Lide ta Ixidor*, Inchaustiren musikarekin, *Mirentxu*, Guridirekin lankidetzan, *Lelo, Peru Gixon...* horiek guztiak kutsu erromantikodunak, euskal kultura, tradizio eta ohituren gainean zuen maitasunean inspiratuak.

Literaturan lan handia egin zuenez, apurka-apurka negoziok atzean utzi zituen eta prentzaz baliatu zen bere kezka eta talentua islatzeko. Kolaborazio batzuk egin zituen *La Tarde* eta *El Sol* egunkarietan baina *Euzkadi* egunkaria izan zen bere testuen hartzaile nagusia. 1913an sortu zenetik, eta gaztelaniaz idazten ziren edukien erredaktore buru gisa zuen zeregina gorabehera, Echavek *Titirimundi bilbaino* izeneko atal bat betetzen zuen egunkarian. Bertan, bizimodu bilbotarraren erretratu bizi eta burutsuak, kontakizunak eta istorio kostunbristak eskaini zituen. Bereziki dibertigarriak ziren berak sortutako pertsonai batek sinatzen zituenak, "Josetxu, el de Iturribide" delakoak, euskal arlote jator, inuzente eta sinplearen prototipoak. Genero kostunbristan sartzen da, era berean, *El Bilbao del maestro Valle visto desde la Coral* lan bikaina, Echavek bere maisu eta lagun handia izan zen Aureliano Valleren omenez idatzitakoa.

1900an ezkondu zen Clotilde Cucullu y Gamberekin, lau seme-alaba izan zituzten, baina bere emaztea hil egin zen, azkena erditu eta gero. Biriketako tuberkulosi batek jota, bere etxean hil zen Alfredo, Somera kalean, 1926ko urtarrilaren 22an. Bere lanari omenez, Echavek kale bat dauka Bilboko Txurdinaga auzoan, 2010. urteaz geroztik.



En la bilbaina calle de la Estufa, un 8 de febrero de 1872, vino al mundo Alfredo Echave Nazabal. Fue el cuarto hijo del matrimonio formado por Tomás Echave Zárraga, natural de la villa, y la oriotarra Dominga Nazabal Echave, casados en San Nicolás en el año 1860.

Echave curso estudios de Comercio y orientó su vida profesional hacia los asuntos mercantiles, trabajando durante un tiempo como representante de la Sociedad Basconia en Barcelona y viajando en 1911 a Buenos Aires en representación de la Cámara de Comercio para impulsar el Banco Vasco.

Sus aficiones e intereses personales marchaban, sin embargo, por otros derroteros. En 1898 escribió su primera obra de teatro, titulada *La Horda*, para ser representada en el "Euzkeldun Biltokia", la sociedad cultural fundada por Azkue para promoción del teatro y el euskera. La clausura de la

asociación impidió su puesta en escena, pero el texto le serviría de base para la creación del libreto de *Lenago il* que, con música del Maestro Valle, se convertiría en 1905 en su primer estreno. Alfredo Echave se destacaba ya como uno de los impulsores del teatro lírico vasco. En los años siguientes verá la luz *Bide Onera*, también musicada por Valle, *Lide ta Ixidor*, con música de Inchausti, *Mirentxu*, en colaboración con Guri, *Lelo, Peru Gixon*, ... obras todas ellas de aliento romántico, inspiradas en su amor por la cultura, las tradiciones y costumbres del pueblo vasco.

Su dedicación a los quehaceres literarios le llevó a abandonar paulatinamente los negocios, encontrando en la prensa otro de los cauces para el desahogo de sus inquietudes y talento. Aparte de algunas colaboraciones en los periódicos *La Tarde* y *El Sol*, fue el diario *Euzkadi* el principal destinatario de sus textos. Desde sus orígenes en 1913, y al margen de su tarea como redactor jefe de los contenidos en castellano, Echave alimentará en este periódico una sección titulada *Titirimundi bilbaino*, en la que ofrece ingeniosos y sagaces cuadros de la vida bilbaina, relatos e historias costumbristas, siendo especialmente divertidos los firmados por un personaje de su creación, "Josetxu, el de Iturribide", prototipo del arlote vasco, noble, ingenuo y sencillo. Perteneciente también al género costumbrista es la deliciosa obra *El Bilbao del maestro Valle visto desde la Coral* que Echave escribió en homenaje a quien fuera su gran maestro y amigo, Aureliano Valle.

Casado en 1900 con Clotilde Cucullu y Gambe, fue padre de cuatro hijos, perdiendo a su esposa al nacer el último de ellos. Aquejado de una tuberculosis pulmonar, falleció en su domicilio de la calle Somera el 22 de enero de 1926. Como reconocimiento a su trabajo y a su obra Alfredo Echave tiene, desde 2010, una calle en el bilbaino barrio de Txurdinaga.